

EUSKARALDIA: jantzi txapa!

Maiatzaren 15etik 25era laugarren Euskaraldia dator. Txapak bidali ditugu, beraz, datorren ostegunean ez ahaztu txapa jantzeaz! Eta noski... ariketa ondo egiteaz! Ahobizi rola hautatu badugu lehen hitza euskaraz egingo dugu eta belarriprest hautatu badugu, izan belarria beti prest!

Gogoratu ere Arigunea sortu badugu, bidalitako karteltxoak jarri behar dugula euskaraz eroso egoteko gunea izan dadin.

Gainera, anima zaitetz antolatzen diren ekintzetan parte hartzera, hala nola, Elkagoak Euskarazek antolatu duen bisita gidatuan.



EUSKARALDIA: ¡ponte la chapa!

Del 15 al 25 de mayo llega el cuarto Euskaraldia. Hemos mandado las chapas, así que el próximo jueves ¡no te olvides de ponerte la chapa! Y claro... ¡haz bien el ejercicio! Si hemos elegido el rol ahobizi comenzaremos las conversaciones en euskera y si hemos elegido belarriprest, ¡debemos tener siempre el oído listo!

Recordar también que si hemos creado un Arigune, tenemos que poner el cartel enviado.


Además, ¡ánimate a participar en las actividades que se organicen, como la visita guiada que ha organizado Elkagoak Euskaraz.

GOGORATU: BISITA GIDATUA

Maiatzaren 22an, osteguna, Arriaga Plazatik 18:45ean abiatuko da bisita gidatu interesgarri hau.

Bertan, XX mende hasierako euskararen pizkundea ezagutzeko aukera izango dugu: nola sortu ziren lehenengo ikastolak, euskara ikasteko lekuak, lehenengo aldizkari eta egunkariak euskaraz, Euskaltzaindia...

Pedro Zuberogoiak, bere anaia Aitorrekin **Bertan Bilbo** liburuaren egilea izango da bisita polit hau gidatuko duena. Izena emateko eposta bat bidali: basqueproeus@bm30.eus



RECUERDA: VISITA GUIADA

El 22 de mayo, jueves, saldrá desde la Plaza Arriaga a las 18:45 esta interesante visita guiada

Allí tendremos la oportunidad de conocer el renacimiento del euskera de principios del S.XX: las primeras ikastolas y centros para aprender euskera, las primeras revistas y periódicos en euskera, Euskaltzaindia...

Pedro Zuberogoiak, autor del libro Bertan Bilbo con su hermano Aitor, será el encargado de conducir esta bonita visita. Para inscribirse enviar un correo a basqueproeus@bm30.eus

ZerNonIkusi mugikor edo telebistarako APPa

Azken aldian behin eta berriz entzun izan dugu, euskarak interneten bere txokoa behar duela, hainbat hizkuntzen artean ez galtzeko.

ZerNonIkusi.eus edo ZNI euskarazko web ataria da, plataforma digitaletara euskaraz bikoizturik heltzen diren film, telesail eta dokumentalen bilaketa errazten duena.

Streaming plataforma ezberdinetan euskaraz zer aurkitu daitekeen, erraz kontsultatzeaz gain, zinemetako estreinaldien inguruko informazioa ere aurki dezakezu.



APP para móvil o televisión ZerNonIkusi

Últimamente hemos oído una y otra vez que el euskera necesita su sitio en internet para no perderse entre el maremagnum de lenguas.

ZerNonIkusi.eus o ZNI es un portal web en euskera que facilita la búsqueda de películas, series y documentales que llegan a las plataformas digitales doblados en este idioma.

Además de consultar qué se puede encontrar en euskera en las diferentes plataformas de streaming, también puedes encontrar información sobre los estrenos de cine.

<https://zernonikusi.eus/hasiera>